

Euskarazko ezeztapenaren hitz hurrenkera eta analisi proposamenak aztergai

Alazne Arriortua Zorrilla (UPV/EHU)

Zuzendaria: Xabier Artiagoitia Beaskoetxea

Gradua: Euskal Ikasketak

Jakintza-arloa: Euskal Filologia

Ikasturtea: 2014-2015

LABURPENA

Lan honek euskaraz polaritateak agertzen dituen arazoak aurkezten ditu eta, horren aurrean, zenbait adituk proposatutako irtenbideak edo analisi sintaktikoak jasotzen. Horretarako, lana hiru atal nagusitan banatu dut.

Lehenbizi, polaritatedun perpausak deskribatu ditut; alde batetik, ezeztapenari dagokionez euskarak dituen ezaugarri tipologikoak aurkeztuz, Haegeman eta Zanuttini (1991) oinarri eta, bestetik, polaritatedun perpausen hitz hurrenkera perpaus mota ezberdinetan jorratuz. Bada, euskara ezeztapen marka bakarra eta ezeztapen komuntadura duen hizkuntza dugula argudiatu ostean, baieztatu dut euskaraz baieztapen perpausak [A-Lag] hurrenkera agertzen badute ere, ezeztapenak laguntzailea ezkerrean mugiarazten duela, [ez-Lag...A] ordena eraginez. Hau da joera orokorra, baina mendeko zenbait perpausetan ez da laguntzailearen ezkerreko destokitzerik gertatzen. Horregatik, hainbat perpaus mota jorratu ditut; nagusi zein mendeko, jokatu zein jokatugabe.

Bigarren urratsean ezeztapenaren inguruan egin diren hiru proposamen nagusiak aurkezten ditut: a) Laka (1989etik aurrera), b) Ortiz de Urbina (1989tik aurrera) eta c) Haddican (2004, 2008).

Lakak ezeztapena buru-lehentzat jo eta egiturako posizio gorenean kokatzen du, inflexioaren gainetik. *Denboraren o-komando baldintzak* eraginda, inflexioak ezeztapenera igo behar du, buruz buruko mugimenduaren bidez.

$$a) [\Sigma[\Sigma \text{ez}[\text{lag}]]][\text{InflS}[\text{AspS}[\text{AS}[\dots]][\text{A} \dots]][\text{Asp} \text{-i}/\emptyset]][\text{Infl} \text{t}_{\text{lag}}]] \quad (\text{Laka})$$

Ortiz de Urbinak ezeztapena operatzaile gisa hartzen du eta inflexioak tasun ahula duenez, inflexiora mugitzen da honi euskarri lexikoa emateko. Ondoren, inflexio buru konplexuak buru-lehena den *Konp*-era igo behar du, ezeztapenaren operatzaile izaerak bultzatuta.

$$b) [\text{KonpS}[\text{Konp}[[\text{ez}]\text{lag}]]][\text{InflS}[\text{EzS}[\text{AS}[\dots]][\text{A}][\text{Ez} \text{t}_{\text{ez}}]][\text{Infl} \text{t}_{\text{lag}}]] \quad (\text{Ortiz de Urbina})$$

Haddicanen analisia antisimetriaren eredu teorikoan oinarritzen da. Ezeztapena eta partikula ebidentzialen arteko besarkadura harremanak azaltzeko, proposatzen du denboraren azpian kokatzen den ezeztapena partikula ebidentzialen gainetik kokatzen den polaritate sintagmara igotzen dela sintagma mugidaren bitartez.

c) [PolS *ez*_j [Pol' \emptyset [Mod(evid)S *omen* [DnbS *Lag* [EzeztS <*ez*> [Ezezt' \emptyset [...]]]]]]]] (Haddican)

Hiru proposamenak aztertu ditugu eta, ahal den neurrian, hedatu, aurkez ditzaketen arazoak agerian utziz. Nabarmenena, edo hiru analisiak aurkezten duten gabezia da ez dutela euskarazko ezeztapenaren hitz hurrenkera neutroa azaltzen. Dena den, arazo gehien sortzen dituzten perpausak mendekoak dira, hitz hurrenkeratik beratik hasita. Izan ere, mendeko perpausen oinarritzko hurrenkera *A-ez-Lag* den arren, batzuek, laguntzailearen ezkererako destokitzea onartzen dute eta badirudi horren arrazoia menderagailuaren zama semantikan dagoela. Nahiz eta ez den beti betetzen, badirudi zenbat eta menderagailua hutsagoa izan, orduan eta hobeto onartzen dela laguntzailearen destokitzea. Halere, Haddicanek eta Ortiz de Urbinak mendeko perpausak lantzen ez dituzten arren, 4. puntuari esker baieztatu dugu, oro har, hobeto azal daitezkeela laguntzailearen ezkererako destokitzea duten mendeko perpausak. Izan ere, analisia destokitzerik ez duten perpausetara hedatzean, galdera asko sortzen dira: Ortiz de Urbinaren kasuan, gainerako perpausetan ez bezala, ezeztapena bere jatorritzko lekuan geratu beharko litzateke, azal ezin daitekeelarik zergatik kasu hauetan ez den foku burura igotzen. Haddicanen kasuan ez da erraza elementuen hitz hurrenkera azaltzea.

Perpaus jokatu gabeek ere osagaien jokaera berezia aurkezten dute Haddican eta Ortiz de Urbinaren proposamenetan, aditz sintetikoek bezala jokatzeko dutela proposatu beharra dagoelako.

Beraz, orain arte eginiko proposamenen artean, badirudi Lakaren analisia dela osoena, momentuz.

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Polaritatedun perpausak euskaraz
 - 2.1. Ezaugarri tipologiko zenbait
 - 2.2. Ezaugarri morfo-sintaktikoak eta ezeztapenaren kokapena perpausean
 - 2.2.1. Perpaus nagusiak
 - 2.2.2. Mendeko perpausak
3. Ezeztapenaren inguruan egin diren proposamenak
 - 3.1. Laka (1989, 1990, 1991, 1993)
 - 3.1.1. Denboraren o-komando baldintza
 - 3.1.2. Analisi orokorra
 - 3.1.3. Analisiaren aldeko argudioak
 - 3.1.4. Mendeko perpaus jokatuak
 - 3.1.5. Perpaus jokatugabeak
 - 3.2. Ortiz de Urbina (1989, 1993)
 - 3.3. Haddican (2004, 2008)
 - 3.3.1. Antisimetria bi hitzetan
 - 3.3.2. Partikula modal eta ebidentzialen jokabidea
 - 3.3.3. Analisi proposamen berritzailea
4. Analisisien berrikuspena eta hedapena
 - 4.1. Perpaus nagusiak
 - 4.2. Mendeko perpausak
5. Ondorioak
6. Bibliografia

1. SARRERA¹

Ezeztapena gutxi landu da euskaraz; gaiak ez die adituei buruhausterik eragiten. Gezur bi hauek nahiko dira konturatzeko euskaraz ezeztapenak baduela zeresanik, ez dela berdina perpauseko osagaien arteko hurrenkera ezezko eta baiezko polaritatedun perpausetan. Bestela, aldera bitez perpausotako aditz laguntzaileen kokapenak: “Jon etorri da” vs. “Jon ez da etorri”. Era berean, gezurrok lan honen helburua azaltzen laguntzen didate; alegia, buruhausteak eragin izan eta eragiten dituelako eta ez delako gutxi jorratu, hainbat dira ezeztapenaren analisi sintaktikoa azaltzeko egin diren saioak. Horietatik hiru dira hurrengo lerroetan azalduko ditudanak, hiru horiek direlakoan egin izan diren proposamenik nagusienak: alde batetik, buru parametroa ontzat jotzen duten Lakaren (1989tik aurrera) eta Ortiz de Urbinaren (1989tik aurrera) proposamenak eta, bestetik, Haddican-ek (2004, 2008), antisimetriaren eredu teorikoa oinarri, proposaturikoa. Analisiok sakonki eta kritikoki aztertzen saiatuko naiz.

Horretarako, hainbat urrats egingo dira: lehenik eta behin, euskarazko polaritatedun perpausak deskribatuko ditut, azaleneko zein ezkutatuena dauden ezberdintasunak aurkeztuz. Jarraian, aipaturiko hiru analisi sintaktikoak zertan dautzan ikusiko dugu. Azken puntuan adituek esandakoaz, proposatutakoaz haratago joango naiz eta hiru analisiok mugatuegi egonez gero, apur bat hedatzen ahaleginduko naiz; alegia, adituek perpaus motaren bat azaldu ez badute, perpaus mota hori euren analisiaren arabera azaltzeko saioa egingo dut; horrela, analisi bakoitzak agertzen dituen arazoak aurkitu ahalko ditudala uste dut. Bukatzeko, ondorioekin batera, ikuspegi kritikoa aurkeztera joko dut, kontuan izan ez diren edukiak edo alorrak azaleratuz, eztabaida piztuz.

Lan honetako protagonistak, zalantzarik gabe, Laka, Ortiz de Urbina eta Haddican izango dira. Halere, beste hainbat hizkuntzalariren lanak ere erabiliko dira eta ezeztapenaren hitz hurrenkeraren deskribapenerako euskal gramatika tradizionalak – EGLU eta, batez ere, gaur egungo gramatika kanonikoa den *A grammar of Basque*– izan diren arren informazio iturri nagusienak, maiz *Sareko Euskal Gramatika* izan dut oinarri.

¹ Lanean zehar honako laburdurak erabili dira: *A* = aditza, *Abs* = absolutiboa, *Asp* = aspektua, *Dat* = datiboa, *Denb* = denbora, *DS* = determinatzaile sintagma, *EGLU* = Euskal Gramatika Lehen Urratsak, *EPE* = ezezko polaritatedun elementuak, *Erg* = ergatiboa, *Espez* = espezifikatzailea, *FL* = forma logikoa, *Fok* = foku, *Ind* = indar, *Infl* = inflexioa, *Jok* = jokatasun, *Konp* = konplementatzailea, *Lag* = (aditz) laguntzailea, *SEG* = Sareko Euskal Gramatika, *Top* = topiko.

2. POLARITATEDUN PERPAUSAK EUSKARAZ

2.1. Ezaugarri tipologiko zenbait

Jakina denez, euskara *pro-drop* (ikus Ortiz de Urbina 1989a:157-165) hizkuntza da. *Pro-drop* hizkuntza izateak esan nahi du, aditz inflexioan argumentuak markatzen direnez, DS-argumentuak isil daitezkeela. Esaten da euskara *hiru alderdiko pro-drop* (*three-way-pro-drop*) hizkuntza dela, beste hizkuntza batzuetan ez bezala, zehar objektua (datibo) eta objektu zuzena (absolutibo) ez ezik, euskaraz subjektua (ergatibo, absolutibo) ere isil baitaiteke. Horrela, aditzaz bakarrik osatutako perpausak aurki ditzakegu euskaraz, EGLU I-en (1991:11) aipatzen den bezala:

- (1) a. Mirenek zu ikusi zaitu b. *pro*_{erg} *pro*_{abs} ikusi z-a-it-u

Gainera, SOA hizkuntza da euskara; euskarazko hitz hurrenkera nagusia, behintzat, SOA dela esaten da Greenberg-ek (1963) bere *Universals of Language* atara zuenetik. Horrek esan nahi du, ordena neutroan, perpausa osatzeko aditzaren inguruan biltzen diren osagaiak aditzaren aurretik agertuko direla, aditza perpausaren amaieran espero genukeelarik. Ordena neutroa edo *out of the blue* testuingurua, hots, aurrekaririk gabeko testuingurua, “Zer gertatu da?” galderari erantzunez lortzen da:

- (2) a. Miren **etorri da**
b. Mirenek ogia **erosi du**
c. Mirenek Joni liburu bat **oparitu dio**

Egia da, halere, euskarak hitz ordena malgua duela eta askotan, SOA agertu beharrean, bestelako hitz hurrenkerak onartzen dituela (ikus de Rijk 1969):

- (3) a. Etorri da Miren
b. Mirenek erosi du ogia (SVO)
c. Liburua oparitu dio Mirenek Joni (OVS)

Ez diogu tarte berezirik eskainiko hitz hurrenkeraren malgutasun horri, baina halabeharrez hautemango dugu euskarazko perpaus mota ezberdinak ikusi ahala. Euskarazko ezaugarri tipologiko orokor bi ikusi ditugu; murgil gaitezen orain ezeztapenari dagozkion ezaugarri tipologikoetan, Haegeman eta Zanuttiniren (1991:233-234) lanean oinarrituz.

Ezeztapenaren adierazpenari, zehatzago, perpaus ezeztapenaren adierazpenari dagokionez, hizkuntzak gutxienez bi ezaugarri multzoz bereizita ageri dira, Haegeman eta Zanuttinik (1991) diotenez. Hizkuntzak bereizten dituen lehen ezaugarri oposaketa hizkuntza jakin batek ezeztapena adierazteko beharrezko duen elementu edo osagai kopuruan datza: hizkuntza batzuek, frantsesak kasu, ezeztapen erdibitua (*bipartite negation*) dute (4), esan nahi baita, bi elementu behar dituzte ezeztapena adierazteko, aditzaren aurrean kokatzen den ezeztapen klitiko *-ne* edo *n'* aditza bokalez hasten bada– eta bestelako ezeztapen marka *-pas* (4a) da ohikoena baina badira ezeztapenaren bigarren zatia osa dezaketen beste hainbat ere: *personne* ‘inor’ (4b), *jamais* ‘inoiz’, *rien* ‘ezer’, *etab-* bana, hain zuzen ere:

- (4) a. Elle **n'a** **pas** vu son père
 hark EZ-du EZ ikusi bere aita
 ‘Hark ez du bere aita ikusi’
- b. Elle **n'a** vu **personne**
 hark EZ-du ikusi inor
 ‘Hark ez du inor ikusi’

(Haegeman eta Zanuttini 1991:233)

Frantsesez, beraz, ezeztapenak bi marka behar ditu. Hala ez balitz, hots, agerpen bakarra balu, perpaus ez-gramatikala genuke (5):

- (5) a. *Elle **n'a** vu son père
 hark EZ-du ikusi bere aita
 ‘Hark ez du bere aita ikusi’

Beste hizkuntza batzuek, ordea, ezeztapen marka bakarra dute. Euskara mota honetako hizkuntza dugu:

- (6) a. Miren **ez** da etorri
 b. Nik **ez** diot **inori ezer** esan

(6a) perpausak erakusten du euskaraz ezeztapen elementu bat nahikoa dela perpausa ezeztatzeko: *ez* partikula, alegia. Frantsesak ez bezalako jokabidea du euskarak, beraz, lehen ezaugarri oposaketari dagokionez. Izan ere, ikusten duguna da *ez* agertzen dela aditz laguntzailearen ostean eta ez dago bestelako ezeztapen elementurik *ez* horretaz aparte.

Bigarren ezaugarri oposaketak ez du zerikusirik ezeztapen agerpen kopuruarekin, baizik eta ezeztapen agerpen anitz edo ezezko marka, elementu anitz gauzatzen direnean perpaus berean, elementu horien interpretazioarekin; hots, nola interpretatzen dugun hizkuntza bakoitzean perpaus berean ezeztapen edo ezezko elementu ugari agertzea. Oposaketa honen bidez bereiz ditzakegu ezeztapen komunztadura (*negative concord*) batetik eta ezeztapen bikoitza (*double negation*) bestetik. Errepara diezaiogun nederlanderazko ondoko perpausari:

(7) Ik heb **niemand** **niet** uitgenodigd
 nik dut inor ez ez gonbidatu
 ‘Nik ez dut inor ez gonbidatu’ (‘Nik norbait gonbidatu nuen’)

(Haegeman eta Zanuttini 1991:234)

Nederlanderaz ezeztapenak berezko indarra du; honek esan nahi du, ezezko elementu batek ondorengoa ezeztatuko duela (Haegeman eta Zanuttini 1991), baiezko perpaus baten interpretaziorako bidea zabalduz. (7) adibideaz baliatuz hobeto uler daiteke: *niemand* ‘inor ez’ eta *niet* ‘ez’, biak dira ezeztapen elementuak. Biek dute perpaus osoa ezeztatzeko indar nahikoa, ez dute elkarren beharrik, ez dute elkar osatzen, *niemand*-ek berez perpausa ezeztatzen du, baita *niet*-ek ere. Hortaz, bietako bat agertzean, perpaus osoa ezeztatzen du, baita ondoren datorren ezeztapen elementua ere, ezeztapen elementurik balego. Horrela, ezeztapen bik nolabaiteko baieztapena osatzen dute: *nik ez dut inor ez gonbidatu* (itzulpen literala) bezalako perpaus batek norbait gonbidatua izan delako ideia jasotzen du.

Baina euskaraz ez da hori gertatzen. Euskaraz *ezer*, *inor*, *inoiz*... ezezko polaritatedun elementuak (EPE) dira, bai, baina euren kaxa ez dute indar nahikorik perpaus osoa ezeztatzeko, *ez* partikularen beharra dute. *Ez* ez balego, perpausak ez luke izango ezeztapen zentzurik (8):

(8) a. **Inor** etorri al da?
 b. Zer egin duzu? - **Ezer** *(ez)

Dena den, horrek ez du esan nahi euskarak ezeztapen marka bat baino gehiago behar duenik ezeztapena adierazteko. Euskarak eta nederlanderak erakusten duten jokaera desberdintasunari zor zaio ezezko polaritatedun elementuak bakarrik agertu ezin izatea ezezko perpausak osatzeko. Etxeparek (2003) dioenez, euskarak ezeztapen komunztadura du; EPE elementuek ez dute berezko indarrik eta ezeztapen nagusiaren,

ez partikularen, menpe daude ezeztapena osatu nahi badute, zilegitzea behar dute (galderek ere EPEak zilegiztatzeko dituzte). Bi ezezko elementu elkartzen direnean, ezezko perpausari osotasuna ematen diote, perpausa behin baino ez delarik ezeztatzen. Ezezko elementu ugari agertu arren, ez da inolako baiezkotzat interpretazioaren zantzurik antzematen.

Euskararen ezaugarri tipologikoak ezagututa, goazen ezaugarri morfo-sintaktikoak deskribatzera.

2.2. Ezaugarri morfo-sintaktikoak eta ezeztapenaren kokapena perpausean

Bi motatako ezezko perpausak aurki ditzakegu euskaraz. Perpaus osoari eragiten dion, hots, perpaus osoa ezeztatzen duen, ezeztapena, batetik:

- (9) a. Jon ez da etorri
- b. Jonek ez du Miren ikusi
- c. Jonek ez du ogirik erosi
- d. Ezin dut horrelakorik pentsatu (EGLU 1991:9)

Eta perpausoko osagaien bat, sintagma, osagarria... ezeztatzen duen ezeztapena, bestetik:

- (10) Soldatarik **eza** da lanik **gabe** daudenen **ezbeharra** eragiten duena
(Euskara institutua, *SEG*)

Lan honetan lehenengo motari (9) dagokion ezeztapena baino ez dugu jorratuko eta honek perpausean eragiten dituen aldaketak, ontzat hartuz baiezkotzat perpausetan ageritako hitz hurrenkera dela oinarritzekoena edo arruntena. Perpaus ezeztapena landuko dela diogunean, zehazki esaten ari garena da, Euskara Institutuak SEGn emandako azalpena nire eginez, aditza *ez* partikularen bitartez ezeztatuta duten perpausak baino ez ditugula jorratuko. Mota honetakoak dira EGLU I-en (1991:9) azaltzen diren ezezko perpausak. Euskararen gramatika honen arabera, ezezko perpaus guztiek *ez* edo *ezin* dute. *Ez* edo *ezin* egoteak, hau da, ezeztapenak, hitz hurrenkeran aldaketak eragiten ditu. Atal honetan saiatuko gara ahalik eta zehatzen deskribatzen eta erakusten zertan dautzan aldaketa horiek, baiezkotzat perpausak ezezko perpausekin erkatuz.

Horretarako, alde aurretik, euskaraz ezeztapenaren ordena kanoniko edo neutroa azaldu beharra dago. Izan ere, ikusi dugu zein den euskararen hitz hurrenkera neutroa,

SOA, baina ezin ditugu ezeztapenak eragiten dituen aldaketak azaldu ezeztapenaren hurrenkera ez-markatua zein den finkatu gabe. Ezeztapenaren ordena neutroa zein den erabakitzeko, erabil genezake Elordietak (2001) euskararen hurrenkera ez-markatua finkatzeko darabilen metodo bera, hots, *zer gertatu da?* galderari erantzutea:

- (11)
- a. Mikelek ez dio Aneri oparia eman
 - b. #Ez dio Mikelek Aneri oparia eman
 - c. #Mikelek ez dio oparia Aneri eman
 - d. #Ez dio Mikelek oparia Aneri eman
 - e. #Ez dio oparia Aneri Mikelek eman
 - f. #Ez dio Aneri oparia Mikelek eman

Adibideotan (11) ikusten dugu *zer gertatu da?* bezalako galdera bati, hau da, berez guztiz objektiboa den galdera bati eta, beraz, erantzun objektibo eta neutroa eskatzen duen galdera bati ematen zaion erantzunak honako hitz hurrenkera duela: *(subjektu)-ezeztapen-aditz laguntzaile-(zehar objektu)-(objektu zuzen)-aditza*. Gainerako hurrenkera guztiak markatuak dira eta ez diote galderari behar bezala erantzuten.

2.2.1. *Perpaus nagusiak*

Lehenik perpaus jokatuari helduko diegu, horien artean adierazpen perpausak eta agintera deskribatuko ditugularik. Baina ezer baino lehen gogora dezagun (2) eta (3) adibideen bitartez erakutsi duguna, hots, euskarak hitz hurrenkera malgua duela. Hitz ordena malgua izan arren, badaude hainbat elementu bata bestetik banatu ezin daitezkeenak; hots, perpausoko zenbait osagaik batera agertu behar dute ezinbestean. (1), (2) eta (3)ko adibideak gogotan, ikus dezakegu, baieztako perpausen kasuan, aditz nagusiak eta aditz laguntzaileak elkarren ondotik agertu behar dutela; hitz hurrenkera aldatu arren, ezin dira aditz nagusia eta aditz laguntzailea banatu eta, banatuz gero, perpaus ez-gramatikalak izango genituzke:

- (12)
- a. *etorri Miren da
 - b. *erosi Mirenek du ogia
 - c. *Mirenek oparitu Joni dio liburua
 - d. *du atertu

Baieztapen horren salbuespen ditugu iparraldean erabiltzen diren egitura fokalizatuok:

- (13) a. MIRENEK du ogia erosi
b. MIRENEK dio liburua Joni oparitu

Argi dago, aditz nagusia eta aditz laguntzailea banatu ezin badira, ezinezkoa izango dela beraien artean ezer txertatzea. Ondoko adibideetan ikusiko dugunez, baieztapen honek ere badu salbuespen bat: partikula modalak. Hauek dira aditz nagusia eta aditz laguntzailearen artean txerta daitezkeen bakarrak eta, beraz, aditza eta laguntzailea bana ditzaketen bakarrak:

- (14) a. Miren etorri (*ondo, maiz, gaur...) da
b. Miren (ondo, maiz, gaur...) etorri da
c. Miren etorri (ei, omen, bide...) da

Gainera, partikula modalak, oro har, aditzaren eta aditz laguntzailearen arteko posizio horretan baino ezin dira agertu hizkera gehienetan².

Behin baiezeko perpaus nagusiak deskribatuta, goazen ikustera ezezeko perpausetan zer gertatzen den, hitz hurrenkeran aldaketarik agertzen duten, ikusitako salbuespen eta baldintzak betetzen dituzten, etab.

Lehengo lerroetan azaldu dugun moduan, ezezeko perpausetan ez dugu orain arte baiezekoetan ikusitako hitz hurrenkera aurkitzen, batez ere aditz nagusia eta aditz laguntzailearen banaezintasunari dagokionez. Izan ere, sintagmen hurrenkerak malgua izaten jarraitzen du, baina aditza eta aditz laguntzailea ez dira batera agertzen:

- (17) a. Miren **ez da** etorri
b. **Ez da** Miren etorri
c. Mirenek **ez du** ogirik erosi
d. **Ez du** Mirenek ogirik erosi

² Etxeparek (2011) dio ezberdintasun nabarmen bi daudela *omen* partikulari dagokionez ekialdeko eta erdialdeko hizkeren artean. Bata esanahiari dagokio, bestea, aldiz, perpausoko kokapenari. Bigarrenari helduko diogu zuzenean, lan honetan ez baitugu semantika landuko. Erdialdeko hizkeretan *omen* bakarrik ager daiteke, esan bezala, aditza eta aditz laguntzailearen artean:

- (15) (***omen**) Mikelek (***omen**) egin (**omen**) du (***omen**)

Ekialdeko hizkeretan, berriz, posizio baten baino gehiagotan ager daiteke *omen* partikula perpaus egituran. Etxeparek (2011:90) honako segidak dakartza, erdialdean ezinezkoak izan arren, ekialdeko hizkeretan erabiltzen direnak:

- (16) a. OMEN – Aditza – Laguntzailea...
b. Laguntzailea... OMEN
c. OMEN ... Laguntzailea+Konp ... Aditza
d. Aditza – Laguntzailea ... OMEN

- e. Mirenek **ez dio** Joni ezer oparitu
- f. **Ez dio** Mirenek Joni ezer oparitu

Ezezko polaritatedun perpausotan ikusten duguna da ezeztapena eta aditz laguntzailea direla batera agertzen direnak eta bana ezin daitezkeenak³. Aditz lexikoak hauen ondotik agertu behar du, aditz laguntzailea eta aditz lexikoaren artean osagaiak ager daitezkeelarik. Gainera, baiezko perpausetan aditza eta aditz laguntzailearekin gertatzen den bezalaxe, ezezkoetan partikula modalak baino ezin dira txertatu ezeztapena eta aditz laguntzailearen artean⁴:

- (18)
- a. *ez Miren etorri da
 - b. *Miren da etorri ez
 - c. Miren ez (*maiz, gaur, ondo...) da etorri
 - d. Miren (maiz, gaur...) ez da (maiz, gaur, ondo...) etorri (maiz, gaur, ondo...)
 - e. Miren ez (omen, bide, ei...) da etorri

(18a,b,c) perpausak ez dira gramatikalak, hain zuzen ere, partikula ebidentzialak eta modalak ez diren elementuak txertatu direlako ezeztapena eta aditz laguntzailearen artean.

Adierazpen perpausak deskribatuta, aginte perpausak azaltzeari ekingo diogu. Agintera perpaus jokatu zein ez-jokatuen bitartez gauza daiteke. Perpaus jokatuen bidez egiten dugunean, espero den bezala, perpaus nagusietako hurrenkera bera dugu, bai baiezko perpausetan, bai ezezko perpausetan ere. Ezezko polaritatedun aginte perpausetan, ezeztapenak eta aditz laguntzaileak elkarrekin joan behar dute aditz nagusia eskumatara utzirik. Horrela, nahi beste osagai txerta daiteke ezeztaturiko adizki laguntzailearen eta aditz nagusiaren artean, baina ez ezeztapena eta aditz laguntzailearen artean.

- (19)
- a. Ez zaitetz etor(ri)!
 - b. Ez zaitetz gaur etor(ri)!
 - c. Ez iezadazu ekar(ri)
 - d. Ez iezadazu gaur ekar(ri)
 - e. Ez iezadazu gaur libururik ekar(ri)

³ Adizki trinkoek aditz laguntzaileek bezala jokatzen dute, ezeztapenak eta adizki trinkoak ondo-ondoan agertu behar dute.

⁴ Ezezko perpausetan, baiezko perpausetan ez bezala, bai erdialdeko baina baita ekialdeko hizkeretan ere, partikula modalek, *omen* barne, kokaleku bakarra izan dezakete perpausetan, (18e) adibidean ageri dena, ez eta aditz laguntzailearen artean, hain zuzen ere (cf. Etxepare 2011).

Adizki perifrastikoen bitartez ez ezik, adizki trinkoen bitartez ere adieraz daiteke agintera. Baina kasu honetan asimetria dago baiezko eta ezezko perpausen artean; izan ere, aginterazko adizki sintetikoak erabiliz gero, baiezko perpausak baino ezin ditugu eraiki:

- (20) a. Zatoz hona! b. *Ez zatoz hona!

Adizki perifrastikoetara edo ez jokatuera jo beharko genuke euskaraz aginterazko ezezko perpausak osatzeko. Gaztelaniaz ere antzeko zerbait gertatzen da:

- (21) a. ¡Ven aquí! b. *¡No ven aquí!
c. ¡No vengas aquí!

Gaztelaniaz subjuntiboa behar dugu agintera ezezkoetan eraikitzeko (21c), agintera soila eta ezeztapena ez baitira bateragarri (21b).

Baina zer gertatzen da aditz jokatu gabearen bitartez eraikitzen dugunean agintera? Hala denean, ez dago aditz laguntzailerik, jakina. Hartara, ezin da agertu aditz laguntzailea ezeztapenaren ondo-ondoan. Ezeztapenaren ondoan aditz lexikoa agertuko da, beraz.

- (22) a. (Gaur) ez etorri! b. Ez ekarri (libururik)!

Hala ere, ezeztapenak ez du aditz nagusiarekin aditz laguntzailearekin duen harreman estua:

- (23) a. Ez gaur etorri! b. Ez libururik ekarri
c. Ez gaur libururik ekarri.

Adibideotan ikusten duguna da ezeztapena eta aditz nagusiaren artean nahi beste elementu tarteka daitezkeela.

2.2.2. *Mendeko perpausak*

Mendeko perpausak interesgarriak dira, oro har, ezeztaturik agertzen direnean perpaus nagusiek ez bezalako hurrenkerak agertzen dituztelako. Mendeko perpaus askok ez dute aditz laguntzailearen ezkererako destokitzerik:

- (24) Etorri ez den gizona ezagutzen dut

Hitz hurrenkera hau duten mendeko perpausek bi murriztapen aurkezten dituzte: alde batetik, *aditza-ezeztapena-aditz laguntzailea* hurrenkera izan behar dute eta ezin da elementu horien artean ezer tartekatu. Bestetik, ezeztatutako laguntzaileak mendeko perpausaren azken osagaia izan behar du.

Dena den, badaude beste mendeko perpaus batzuk hurrenkera biak onartzen dituztenak, hots, aurkeztu berri dugun hitz hurrenkera eta perpaus nagusietako hurrenkera. Baita laguntzailearen destokitzerik gabeko hurrenkera nekez onartzen duten gutxi batzuk ere.

Mendeko perpauak mota askotakoak izan daitezke, baina, lan honetan gutxi batzuk baino ez dira landuko:

- a. Mendeko perpaus osagarrien artean *-ela+ezeztapena* eta *zehir galderak+ezeztapena*;
- b. Mendeko perpaus adjunktuen artean denborazko *-enean* eta kausazko *-elako* menderagailuak dituztenak; eta
- c. Mendeko perpaus nominalizatuak (*-tzea*, *-tzeke* atzizkiak dituztenak).

Mendeko perpaus hauek aukeratzeko arrazoia izan da, ikusiko dugunez, guztiek ez dutela hurrenkera bera ezeztaturik ageri direnean. Saia gaitzen zehaztasunez deskribatzen mota bakoitza:

Mendeko perpaus osagarriak dira, Artiagoitiaren (2003:752) esanetan, laguntzailearen ezkererako destokitzeari estuen jarraitzen dioten perpauak, bereziki, *(e)la* atzizkia dutenak:

- (25)
- a. Jonek esan du inork ez diola horren berririk eman
 - b. ?? Jonek esan du inork horren berririk eman ez diola

Artiagoitiaren (2003:752) adibideotan ikus daiteke *-(e)la* konplementatzailea duten perpauak nekez onartzen dutela *A-ez-lag-konp* hurrenkera. Baina zer gertatzen da datu hauek lan berean Etxeparek dakartzanekin alderatuz gero?

- (26)
- a. [ez dela etorri] esan didate
 - b. [etorri ez dela] esan didate

(Etxepare 2003:523)

Etxeparek hurrenkera biak onartzen ditu perpaua mota honetarako. Nik, pertsonalki, Artiagoitiarekin bat egiten dut, ez nituzke (25b) eta (26b) bezalako perpauak erraz onartuko. Halere, badirudi zenbat eta mendekoago izan perpaua, orduan eta errazago onar nezakeela (25b) zein (26b) bezalako egitura bat. Alegia:

(27) Jonek esan dit [Mirenek [Amaiak Aneri oparia eman ez diola] uste duela]]

Dena dela, Lakak (1990) baieztatzen duenez, hurrenkeren onarpena euskalkien araberakoa da. Mendebaldeko hiztunek guztiz gramatikaltzat jotzen dute perpaua nagusietako hurrenkera *-(e)la* atzizkidun mendeko perpauetan eta, nahiz eta guztiz ez gramatikaltzat ere jotzen ez duten, ez dute erraz onartzen *A-ez-lag* hurrenkera. Ekialdeko hiztunentzat, berriz, bigarren hurrenkera da ohikoagoa eta perpaua nagusietako hurrenkera arrarotzat dute perpaua hauetan.

Zehar galderetarako *-(e)n* konplementatzailea erabiltzen da eta honek hurrenkera biak onartzen ditu:

(28) a. Jonek nor ez den etorri galdetu du
b. Jonek nor etorri ez den galdetu du

(28a)n ageri den hurrenkera ‘esan’ erako aditzekin erabiliz gero, ordea, galdera zentzua galdu eta adierazpen perpaua bilakatzen da, Etxeparek (2003:524) agerian uzten duenez:

(29) a. Nor ez den etorri(,) esan didate
b. Nor etorri ez den(,) esan didate

Adibideotatik ondoriozta daitekeenez *A-ez-lag* hurrenkerak hobeto eusten dio galdera zentzuari.

Mendeko perpaua adjunktuei helduz, bi perpaua mota nagusi bereiz ditzakegu: alde batetik, *-(e)la* atzizkitik eratorriak diren konplementatzaileen bat dutenak eta, bestetik, *-(e)n* atzizki oinarri duten konplementatzaile konplexuak dituztenak.

Mendeko perpaua osagarriekin gertatzen den bezalaxe, mendeko perpaua adjunktua guztiek ez dute berdin jokatzen hurrenkerari dagokionez ezeztatuta ageri direnean: *-(e)la* atzizkia oinarri duten konplementatzailetatik *-(e)lako* da hurrenkera biak hoberen onartzen dituen (Artiagoitia 2003:754):

- (30) a. Inork agintzen ez didalako maite dut maite dudana
 b. Inork ez didalako agintzen maite dut maite dudana

Kausazko perpausek, hortaz, hurrenkera biak onartzen dituzte. Etxeparek (2003:528) ere hori baieztatzen du baina honako datuak gaineratzen ditu:

- (31) a. Akzioak ez ditugu [behera egiten ez dutelako] erosi
 b. ?Akzioak ez ditugu [ez dutelako behera egiten] erosi

Antza, perpaus nagusia ezeztaturik agertzen bada eta ezeztapen horren besarkadurapeko foku-kontrastibo bat ezartzen badiogu perpausari, *A-ez-lag* hurrenkera baino ez da onartzen.

-(e)n atzizkitik eratorriak diren konplementatzaileak dituzten mendeko perpausen artean nahiko hautu bateratua ageri da hurrenkerari dagokionez, izan ere, nekez onartzen dute perpaus hauek, orokorrean, aditzaren ezkererako destokitzea. Artiagoitia (2003:757) nire uste berekoa dela ematen du. Horren adibide ditugu berak, beste datu batzuen artean, *-(e)nean* denborazko menderagailua duten perpausen inguruan dakartzan datuok:

- (32) a. Inor ikusi ez dudanean, harritu egin naiz
 b. ?Ez dudanean inor ikusi, harritu egin naiz

Halere, Etxeparek (2003:527) badu kasu honetan ere zeresanik:

- (33) a. Akzioek gora egiten ez dutenean, saltzen hasiko gara
 b. Akzioek ez dutenean gora egiten, saldu behar da
 c. ?Akzioek ez dutenean gora egiten, saltzen hasiko gara

Bere ustez, ezeztapena non kokatzen den, interpretazio ezberdinak daude. (33a)-k bi denbora interpretazio izan ditzake: puntukaria (akzioek gora egiten ez duten eguna, momentua, zehazki) eta generikoa (akzioak geldi dauden denbora, orokorrean). (33b)-k, berriz, interpretazio generikoa baino ez du. Hori dela eta, *ez-generikoa* edo puntukaria den jarraipen bat jarriz gero, (33c) moduko perpaus *ez-gramatikal* edo zalantzazkoak, behintzat, sortzen dira. Gainera, *-(e)lako*-rekin bezala, denborazko mendeko perpausa foku kontrastibo gunean badago, *A-ez-lag* hurrenkera da hobea.

Behin mendeko perpaus jokatuak azalduta, mendeko perpaus ez-jokatuak behatzea baino ez zaigu falta deskribapenaren atal honi amaiera emateko. Bi perpaus mota deskribatuko dira hemen; zehar-galderak eta nominalizazioak.

Zehar galderak jokatu gabeak direnean, ezeztapenak kokaleku bakarra bete dezake perpaus egituran:

(34) Lehendakariari (*ez) zer (ez) eskatu (*ez) esan didate

(34)an ikusten dugunez, ezeztapena partizipioaren aurrean baino ezin da agertu. Perpaus nominalizatuek, aldiz, bi hitz hurrenkera onartzen dituzte:

- (35)
- a. Ez LIBURURIK EROSTEKO agindu didate
 - b. LIBURURIK ez erosteko agindu didate
 - c. BEHAR BESTE ez ikasteak ondorio latzak izan ditzake
 - d. Ez BEHAR BESTE IKASTEAK ondorio latzak izan ditzake

Baina bi hitz hurrenkera onartzeak ez du esan nahi semantikoki guztiz berdinak direnik. Etxepareren (2003:531) arabera, ezeztapena aditz lexikoaren aurretik doanean (35b,c) fokua ondotik ageri da eta aditzaren aurreko elementuaren aurretik ageri denean, ostera, aditzak berak eta aditzaren aurreko elementuak osatzen dute fokua (35a,d).

3. EZEZTAPENAREN INGURUAN EGIN DIREN PROPOSAMENAK

Hiru dira euskarazko ezeztapenaren inguruan egon diren ildo edo proposamen nagusiak: Laka (1989, 1990, 1991, 1993), Ortiz de Urbina (1989,1993) eta Haddican (2004, 2008). Atal honetan ikusiko dugu horietako bakoitzak zer nolako ikuspegi duen ezeztapenari dagokionez eta alderatuko ditugu hiru proposamenok.

3.1. Lakaren (1989, 1990, 1991, 1993) proposamena

3.1.1. *Denboraren o-komando baldintza*


Lakaren (1989, 1990, 1991, 1993) analisisian funtsezkoa dugu *denboraren o(sagai)-komando baldintza*. Hortaz, komenigarria litzateke lehenbizi Lakak, Pollock-ek (1989:370-371) ohar batean eginiko proposamena oinarri, denboraren o-komando baldintza izendatzen duen hori zertan datzan azaltzea:

- (36) DENBORAREN O-KOMANDO BALDINTZA: *Denb/Infl* buruak perpauseko buru funtzional guztiak o-komandatu behar ditu A-egituran.

3.1.2. *Analisi orokorra*

Lakaren arabera, ezeztapena buru sintaktiko bat da. Dena den, ezeztapenak ez du euskaraz buru parametroa betetzen; izan ere, euskara buru-azkena den arren, ezeztapena buru-lehena dugu. Non kokatzen da ezeztapen burua egitura sintaktikoan?

Lakak ezeztapena *Infl* buruaren gainetik kokatzen du. Ezeztapena izango litzateke perpauseko bururik gorena eta perpaus guztiaren gaineko besarkadura izango luke:



Hala ere, egitura sintaktiko honi jarraituz gero, lortzen dugun hurrenkera honakoa litzateke:

- (38) a. *Ez Miren etorri da
b. *Ez Mirenek Joni ezer oparitu dio


Perpaus hauek guztiak ez-gramatikalak dira. Ikusi dugu ezezko perpausetan hitz hurrenkerak aldaketak jasaten dituela, aditz laguntzaileak ezeztapenaren ondo-ondotik agertu behar duelarik. (38)ko perpaus horietan ez dago halakorik, ezeztapena eta aditz laguntzailea ezin urrunago daude. Azaldu beharra dago, orduan, zer nolako mugimenduak gertatzen diren euskararen hitz hurrenkera azaldu ahal izateko.

Horren erantzuna Lakaren analisisian honakoa da: *Infl* burua, *Buru Mugimenduaren Baldintza* (Travis-en *Head Movement Constraint*, 1984:131) errespetatuz, ezeztapen burura mugitzen da. Zerk bultzatuta gertatzen da buru-mugimendu hori? Lehengo lerroetan aipatu dugun denboraren o-komando baldintza, hain zuzen ere. Ezeztapena *Infl* buruaren gainetik badago, denborak ezin ditu egiturako buru sintaktiko guztiak o-komandatu, ezeztapena kanpoan geratzen baita. Ezeztapenera igoz gero, aldiz,

⁵ Lakak (1990) Σ zeinua darabil ezeztapena (*ez*) eta baieztapena (*ba-*), biak jaso ahal izateko kategoria edo proiektzio beraren bitartez (ikus Laka 1990:86-106); dena den, guk ezeztapenari erreferentzia egiteko baino ez dugu erabiliko, ezeztapenaren inguruan egin diren proposamenak baititugu aztergai.


ezeztapen osoa ez, baina ezeztapen burua, behintzat, o-komandatuko luke A-egituran. Ikus dezagun argiago orain arte esandakoa adibide baten bidez:

(39) Ez da etxea erori (Laka 1990:30)



Ikusi berri dugun analisia adizki perifrastikoetarako proposatutakoa da. Adizki trinkoetarako proposatzen duena honakoa da:

(40) Ez nakarzu



Adizki perifrastikoetan (39) *Asp* burua dago. Aditza aspektura igotzen da, hori baita gertuen duen burua, eta aditza barnean biltzen duen aspektu buru konplexua ez da *Infl* burura igotzen. Adizki trinkoek (40), aldiz, ez dute aspekturik. Hori dela eta, aditzak inflexiora igo behar du eta ondoren inflexioa, aditza barne, igoko da ezeztapenera.

3.1.3. *Analisiaren aldeko argudioak*

Ezeztapena inflexioaren gainera dagoela frogatzeko, Lakak argudio bat aurkezten digu 1989ko lanean, ezezko polaritadedun elementuen jokabideari dagokiona: EPEak agertu ahal izateko, ezeztapenak o-komandatu behar ditu A-egituran, horrela elementu

hauen agerpena zilegiztatuz. Lakak argudioa eraikitzeke EPEek euskaraz duten agertzeko ahalmena ingelesez dutenarekin alderatu egiten du:

- (41) a. *Anybody didn't come b. Mary didn't see anything
 c. Ez da inor etorri d. Ez dio inork inori ezer eman

Ingelesez, oro har, objektuen eta subjektuen arteko asimetria gertatzen da⁶. Perpausean objektu funtzioa badute (41b), ezezko polaritatedun elementuak agertu ahal dira. Subjektu funtzioa badute (41a), berriz, ez. Izan ere, ingelesez ezeztapena inflexioaren azpitik ageri da. Hori dela eta, ezeztapenak baimentzen du objektu posizioan EPEak agertzea, objektuaren gaineko besarkadura baitu. Subjektuarekin, ordea, ez da gauza bera gertatzen. Ezin du subjektua o-komandatu A-egituran eta horregatik ez du baimentzen subjektu funtzioa betetzen duten osagaietan EPErik agertzea. Euskaraz bai subjektu funtzioan, ergatibo zein absolutibo izan (41c,d), bai objektu funtzioan, datiboan zein absolutiboan (41d), ager daitezke EPEak. Horrek erakusten du ezeztapenak inflexioaren gainetik egon behar duela, kasu guztiak o-komandatzen baititu.

EPEak, hortaz, bere analisiaren aldeko argudiotzat erabil daitezke. Baina, nola tratatzen ditu Lakak EPEak? (41) adibideetan ikusi dugun hurrenkera ez da euskaraz aurki dezakegun bakarra, EPEak ezeztapenaren aurretik ere ager baitaitezke (Laka 1993:32-33):

- (43) a. **Inor** ez da etorri b. **Inori** ez diot ezer esan
(44) *Inor berandu ez da etorri

(43)ko perpausetan ageri den hitz hurrenkera dugunean, Lakak (1993) proposatzen du EPEek [espezifikatzaile-buru] harremana dutela ezeztapenarekin. Hurrenkera hau dugunean EPEak [espez,ΣS] posizioan kokatzen direla (44)ak iradokitzen du. Izan ere, ezin da ezer agertu EPEaren eta ezeztapenaren artean, espezifikatzaile posizioa EPEak betetzen baitu.

⁶ Badaude bi salbuespen (ikus Laka 1990:39-40): ingeles erregistro eta barietate jakin batzuetan *no way* agertzen denean (42a) eta ezeztapena perpausaren hasieran kokatzen denean ("neg-preposing") (42b):

- (42) a. No way *anybody* is gonna tell me what to do.
 b. Not since the Lord himself showed his stuff to Ezequiel in the valley of dry bones had *anyone* brought such grace to the reconstruction of animals from disarticulated skeletons.

Kasu hauetan ezeztapenak euskaraz duen jokabide bera aurkezten du; izan ere, EPE-ak o-komandatzen ditu.

1990eko tesian bigarren argudio bat gaineratzen du bere analisiaren alde; EPEen jokabideaz ez ezik, inflexioaren elipsiaz ere baliatzen da ezeztapenak inflexioaren gainetik egon behar duela baieztatzeko. Beha ditzagun ondorengo perpausak:

- (45) a. Marik liburua erosi du eta Peruk [_{ΣS} ez [_{InflS} ~~du erosi~~]]
b. Mary bought a book and Peter didn't
c. *Mary bought a book and Peter not

(Laka 1990:33-34)

Euskaraz inflexio sintagma osoa ezaba daiteke, ezeztapena nahikoa da perpausa ezeztatzeko eta inflexio sintagma ezabatzeak ez du eraginik ezeztapenean (45a). Ingelesez, ostera, ezin da inflexioa ezabatu; ezeztapena bakarrik agertzen bada (45c), perpausa ez gramatikala da. Ingelesez ezeztapena InflS-ren eta AspS-ren artean kokatzen da; horregatik ezin da inflexioa ezabatu. Euskarak bestera jokutzen du, ikusi dugun moduan. Euskararen jokabideak erakusten du ezeztapenak inflexioaren gainetik egon behar duela.


3.1.4. *Mendeko perpaus jokatuak*

Mendeko perpausak nola analizatzen dituen jakiteko errepara diezaiogun Lakak (1989:83) dakarren ondoko perpausari:

- (46) [inork t erosi ez duen] liburua da hori

Mendeko perpausoko subjektu posizioan EPE bat dugu, *inork*. Horrek esan nahi du ezeztapenak inflexioaren gainetik egon behar duela; gainera, ezeztapena eta inflexioa banatu ezin izateak iradokitzen digu mendeko perpausetan ere, jokatuetan behintzat –ez-jokatuak hurrengo puntuan aztertuko ditugu–, denboraren o-komando baldintza bete behar dela. Dena den, (46) (39) bezalako perpaus nagusi batekin erkatuz gero, ezberdintasun nabarmenak hautematen ditugu: Lakaren (1989:82) hitzetan perpaus nagusi eta menpekoen arteko ezberdintasun agerikoena –eta garrantzitsuena, ikusiko dugunez– honakoa da: “menpeko perpausak konplementatzailea ageri dute; perpaus nagusiek ez”. Konplementatzailearen agerpenak eragiten du perpaus nagusi eta menpekoen hitz hurrenkeren asimetria; menpekoetan aditz lexikoak ezeztatutako aditz laguntzailearen aurretik agertu behar izatea, hain zuzen ere:

(47)



Konplementatzailea atzizki bat da eta aditz laguntzaileari lotuta egon behar du. Hori dela eta, A-egituran aditz laguntzaileak konplementatzaileira igo behar du, baina lehenago ezeztapenera joanez, buruz buruko mugimendua bete nahi badu, bere aztarna behar bezala gobernatuta gelditzeko. Konp buruari erantsita egon arren, ezeztapenaren besarkadura ahalmena ez da aldatzen A-egituran, posizio horretan ere inflexioa o-komandatzen baitu.

1989ko lanean Lakak aintzat hartzen ditu menpeko perpausak, orokorki bada ere. Baita tesian ere; baina menpeko perpausen analisi sakonagoa 1991ko artikuluan egin zuen; izan ere, aurkeztu berri dugun menpeko perpausen analisisia *-(e)n* atzizkia duten erlatiboetako perpausari eta zehar-galderei dagokie. Baina 1991ko lanean *-(e)la* konplementatzailea duten perpausen azalpena gaineratu zuen, hitz hurrenkerari dagokionez, mota honetako menpeko perpausak ageri dituzten bi aukera posibleak – antza denez euskalkien arabera direnak – ulertu ahal izateko.

Munduko hizkuntza askotan ‘esan’ tankerako aditzen perpaus-osagarriek portaera berezia dute gainerako aditzen perpaus-osagarriekin alderatuta. Portaera berezi hori aditz horiek eskatzen duten konplementatzailearen izaerak eragin dezakeela dirudi. Izan ere, Lakak dio konplementatzaileek, oro har, tasun jakin batzuk dituztela, perpausaren interpretaziorako beharrezkoak direnak. Guztiek dute [+mendeko] tasuna, baina, horrez gain, konplementatzaile bakoitzak beste tasun jakinen bat du, bere izaeraren arabera. Adibidez, zehar-galderetako konplementatzaileek [+NZ] tasuna dute, etab.


Lakaren ustetan, *-(e)la* moduko konplementatzaileek [+mendeko] tasuna baino ez dute eta, hortaz, semantikoki hutsak suerta daitezke hainbat hiztunentzat. Horrek eragin dezake bi hurrenkera posible egotea: konplementatzaile huts gisa hartzen duten hiztunek perpaus nagusiak bezala tratatzen dituzte *-(e)la* konplementatzaile dundun perpausak. Konplementatzaile betetzat jotzen dutenek, ostera, gainerako mendeko perpausak

moduan tratatuko dituzte. Honek, era berean, azalduko luke zergatik era batean ekoizten duten hiztunek ez duten beste aukera guztiz onartzen; baita zergatik ez duten guztiz ez-gramatikaltzat jotzen ere.

3.1.5. *Perpaus jokatuabeak*

Lakaren (1990) proposamenean, perpaus jokatuabeen, nagusi zein mendeko, ezaugarriak nabarmenena litzateke ez dutela denborarik. Denborarik ez badago Lakak ez du denboraren o-komando baldintzaren beharrik ikusten eta baieztatzen du baldintza honek ezin duela eraginik izan perpaus mota honetan. Horrela, perpaus jokatuabeak dira ezeztapena aske agertzea ahalbidetzen duten perpaus mota bakarra. Denborarik ez dagoenez ez dugu espero perpaus nagusi eta menpeko perpausen hitz hurrenkeren arteko asimetriarik.

Denbora perpausean ageri denean, hots, perpaus jokatueta, ikusi dugu ezeztapenak inflexioarekin joan behar duela halabeharrez. Denborarik ez dagoenean, berriz, ezeztapena ager daiteke aditzaren ondo-ondoan (48a) zein aditzetik urrun, ezeztapena eta aditza objektu zuzenak eta zehar objektuak (48b) zein leku-denborazko adjunktuek banatuta:




Denboraren o-komando baldintzak, beraz, sintaktikoki denbora duten perpausei baino ez die eragiten.


3.2. **Ortiz de Urbinaren (1989b, 1993) proposamena**

Ortiz de Urbinak ere ezeztapena buru bat dela dio, Lakak bezalaxe; baina ez dator honekin bat ezeztapenaren kokapenean. Izan ere, Ortiz de Urbinak ezeztapena inflexioaren azpitik kokatzen du, InflS eta AS-ren artean, eta buru-azkena dela dio,

Konp burua izanik, bere ustetan, buru-lehena den buru bakarra. Halaber, ezeztapena operatzailetzat jotzen du; Haegeman eta Zanittinik (1991:242-244) ere ezeztapena operatzaile gisa aztertzen dute, batik bat, ezeztapen erdibitua duten hizkuntzak azaltzeko (2.1. puntuaren defendatu dut euskarak ez duela ezeztapen erdibitua). Argigarri gisa baino ez bada ere, operatzaileak zer diren azaldu beharra daukat: operatzaileak A-egituran perpaus osoaren gaineko besarkadura izan behar duten elementuak dira:



Inflexioak, bai adizki perifrastikoetan, bai adizki trinkoetan, tasun ahula du, Ortiz de Urbinaren arabera, eta *aktibatzaile* bat behar du. Aktibatzaile lan hori ezeztapenak egiten du ezezko perpausetan eta horregatik batzen da ezeztapena inflexioarekin, euskarri lexikoa emateko:



Adizki perifrastikoetan (50a) ezeztapen burua inflexiora igotzen da, inflexioari euskarri lexikoa emateko. Baina posizio horretan ezeztapenak ez du perpaus osoaren gaineko besarkadura. Horregatik bilatu behar du leku bat non perpaus osoaren gaineko

besarkadura izango duen. Gune hori ezin da espezifikatzaile gune bat izan, ezeztapena buru bat delako. Horrela Konp burura igotzea da duen aukera bakarra (Ortiz de Urbina 1993:396). Beraz, azkenik, Infl buru konplexua Konp burura igoko da. Adizki trinkoetan (50b) mugidak konplexuagoak dira. Lehenbizi, arrazoi morfologikoak direla eta, aditza inflexiora igotzen da, adizkia osatu ahal izateko. Berez, ezeztapen burua aditza eta inflexioaren artean dago, eta aditzak *Buru Mugimenduaren Baldintza* eta *Mugimendu Laburrenaren Hatsarrea* urratuko lituzke; baina, ezeztapena operatzailea izanik, ezeztapena ez dago aditza eta inflexioaren maila berean. Hori dela eta, aditza inflexiora mugitzen da *Buru Mugimendu Luzearen* bidez. Ondoren, adizki perifrastikoekin gertatzen den moduan, adizki trinkoa ahula izanik, ezeztapenaren euskarri lexikoaren beharra du eta behin ezeztapena *Infl*-era igota, behin *Infl* aktibatuta, azken hau *Konp*-era mugitzen da, ezeztapenaren operatzaile izaerak bultzatuta.

3.3. Haddicanen (2004, 2008) proposamena

3.3.1. *Antisimetria bi hitzetan*

Haddicanen proposamena ez da orain arte ikusitakoen antzekoa. Antisimetriaren eredu teorikoa du oinarri eta azalpena, beraz, oso bestelakoa da. Bere proposamenean murgildu aurretik, komenigarria litzateke antisimetria zertan datzan ikustea, berba bitan bada ere. Antisimetriaren eredu teorikoari jarraitzen diotenek proposatzen dute hizkuntza guztiak buru-lehenak direla, *espez-buru-osagarri* hurrenkera dutela eta, hartara, edozein *osagarri-buru* hurrenkerak eratorria izan behar duela⁷.

3.3.2. *Partikula modal eta ebidentzialen jokabidea*

Hori dela eta, Haddicanek (2008) orain arte ezezko perpausetan ikusi dugun hitz hurrenkera, Lag-AS hurrenkera, alegia, baiezkoko perpausetara hedatzen du, hitz hurrenkera hori euskararen oinarritzko hurrenkeratzat hartzen duelarik. Hori iradokitzen du bere ustez partikula ebidentzialen eta modalen jokabideak. Haddicanek (2008) dio partikula ebidentzial eta modalek, *omen, al, ei, bide, ote, ohi...*, jokabide sintaktiko berezia dutela bi alorretan:

⁷ Kayneren eskutik (1994) heldu zen antisimetriaren ikuspegi berritzailea. Euskaran nola aplikatu den eta antisimetriaren inguruan egin diren lanak zeintzuk diren jakin nahi izanez gero, ikus Arteatx, Artiagoitia eta Elordieta (2008).

a) Hitz hurrenkeran (Haddican 2008:71):

- (51) a. Ez omen zuen urik topatu b. *Ez zoritxarrez zuen urik topatu
c. Bazkalduko bide zuen d. *Bazkalduko zoritxarrez zuen

Ezezko perpausetan, partikula ebidentzial eta modalak dira ezeztapena eta laguntzailearen artean koka daitezkeen elementu bakarrak (51a,b). Era berean, baiezko perpausetan aditza eta laguntzailearen artean ager daitezkeen elementu bakarrak dira (51c,d).

b) Partikula ebidentzialen eta modalen besarkadura jokaera ezeztapenarekiko; ezezko perpausetan ezeztapenaren gainean hartu behar dute besarkadura:

(52) Ez al zuen urik topatu?

- (53) Ez omen zen Oiartzunen jaio # baina ez omen zen kanpoan jaio ere
a. Interpretazio zuzena: *omen>ez*; iradokitzen du ez zela inon jaio
b. Interpretazio desegokia: *ez>omen*; “ez dute esaten Oiartzunen jaio zela, baina ez dute esaten Oiartzundik kanpo jaio zela ere”

(Haddican 2008:71-72)

Haddicanen (2008:72) arabera, (52) perpausetan ikusten duguna da *al* partikulak perpaus osoaren gainean izan behar duela besarkadura eta (53) perpausetan besarkadura ordena *omen>ez* dela, hau da, *omenek* ezeztapenaren gainean duela besarkadura. Izan ere, kontrara balitz, (53) perpauseteko bigarren zatia egokia izango litzateke, (53b)ko interpretazioarekin.


3.3.3. *Analisi proposamen berritzailea*

Ortiz de Urbinaren (1989) eta Lakaren (1990) proposamenen bidez ezin da azaldu partikula ebidentzialen eta modalen besarkadura jokabidea eta hurrenkera. Horrek bultzatuta, Haddicanek (2008) proposamen berri bat dakar: azpiatal honen hasieran aurkeztu dugun oinarrizko *espez-buru-osagarri* hurrenkera. Gainera, kontuan izan behar dugu, Haddicanek (2008:77-79) buru-mugimendua baztertu, eta ontzat hartzen duela sintagma- edo XS-mugimendua, Lakaren (1990:33) AS-ren elipsiaren datuek hala eskatuta:

- (54) a. Jon etorri omen da baina Maitane ez omen da etorri
b. Jon etorri omen da baina Maitane ez [~~omen~~ da etorri]

(Haddican 2008:78)


Isildutako materialak sintagma bat izan behar du, baina hori azaldu ahal izateko ondoko analisi moduko bat onartu beharra dago, non ModS sintagma osoa isiltzen den (54b) bezalako perpaus bat dugunean:




Haddicanek (2008:74-75), Cinque-k (1999) italierarako egin zuen proposamena gogotan, dio *ez* EzeztS-ren espezifikatzaile gunean sortu (Lakak eta Ortiz de Urbinak *ez* bezala, *ez* du ezeztapena burutzak jotzen) eta Pol(aritate) Sintagma deitu duen partikulen gainean dagoen posizio batera mugitzen dela (55). Horrela, hitz hurrenkera *ez* ezik, partikulen ezeztapenaren gaineko besarkadura ere azal daiteke, ezeztapenaren nahitaezko berreraikitzearen bidez. Hots, *ez* PolS-ra mugitzen denez, analisi honek hitz hurrenkera azal dezake; eta ezeztapenaren sorgunea partikula ebidentzialen azpiko posizio batean dagoenez eta partikula ebidentzialek ezeztapenaren jatorrizko posizioa o-komandatzen dutenez, ezeztapenaren eta partikula ebidentzialen arteko besarkadura harremana ere azaltzen du.

Honek oso ondo azaltzen du egitura DS-osagarri guztiak isilduta badaude. Baina, DS-osagarriak isiltzea euskara bezalako *pro-drop* hizkuntzek ematen duten aukera bat besterik ez da. Beharrezkoa da jakitea, beraz, nola osatzen den egitura objektu guztiak txertatuta, hori baita oinarrizko egitura. Haddicanek 2008ko lanean, 2004ko proposamenak agertzen zituen arazoak ikusita eta hauek konpontzeko, honako proposamena dakar:

(56)



Komunztadura egitura konplexu bat proposatzen du Laka (1988, 1993) eta Cheng eta Demirdache (1993) lanei jarraiki, non argumentuak dagokien komunztadura buruaren espezifikatzaile mugituko diren eta laguntzaileak buru-adjunkzioaren bidez eraikiko diren. Dena den, antisimetria oinarri izanik, gogoratu behar dugu *espezifikatzaile-buru-osagarri* hurrenkera proposatzen duela eta, beraz, buru guztiak buru-lehenak izango direla. Hona hemen ezezko perpaus baten analisi osoa, Haddicanen (2008) arabera:



Egitura honetan ikusten duguna da aditz laguntzailearen erroa *Lag* buruan sortzen dela. Inflexio absolutiboa izanik egituran beheren dagoen aditz laguntzailearen morfema, buru-mugimenduen bitartez *Dnb* burura arte igoko da, bidetik erroa eta komuntadurari dagozkion gainerako morfemak hartuz. Hortaz, *Dnb* buru konplexuak *abs+lag+erg+Øezezt+dnb* eraketa du. Morfema horiek guztiek batera osatzen dute 'du' laguntzailea. Aditza ere buru-adjunkzioaren bitartez eratzen da *A>a>Asp* mugiden

bitartez, hain zuzen ere. Aditzaren DS-argumentuak DS-mugimenduaren bidez igotzen dira dagokien komunztadura posiziora (*Anek* [espez, Erg'] eta *filma* [espez, Abs'] posiziora). Azkenik, *ez* sintagma mugidaren bitartez igoko da denboraren gaineko PolS-ren espezifikatzaile, (55)en azaldu bezala.

Baiezko perpausetan BaieztS izango genuke EzeztS-ren ordean eta Baieztapen Sintagma osoa mugituko litzateke PolS-ra, bahin gainerako mugimendu guztiak gertatuta; hots, aditza eta aditz laguntzailea eraiki eta DS-argumentu guztiak dagokien posiziora mugitu eta gero (ikus Haddican 2008:75-76 eta 87-89).

4. PROPOSAMENEN BERRIKUSPENA ETA HEDAPENA

Ezeztapenaren inguruan egin diren hiru proposamen nagusiak ikusi ditugu 3. puntuan, zeintzuk diren euskaraz ezeztapenak sortzen dituen arazoei eman zaizkien irtenbideak. Atal honetan saiatuko naiz analisi horiek guztiak, nolabait, hedatzen edo, gabeziaren batekin topo eginez gero, haiek deskribatzen, behintzat. Egokiena litzateke 1. puntuan ikusitako perpaus mota guztiak azaltzen ahalegintzea, eta hori zen, hain zuzen, hasierako asmoa; baina espazio mugengatik ez dut horretarako aukerarik izan. Hori dela eta, analisisien berrikuspen orokorra egingo dut.

4.1. Perpaus nagusiak

(11)ko adibideetan erakutsi nahi izan dudanez, euskaraz ezeztapen perpausetako hurrenkera neutroan subjektua “ez” partikularen aurretik agertzen da (11a). Ekar ditzagun berriro (11a,b) adibideak:

(11) a. Mikelek ez dio Aneri oparia eman.

b. # Ez dio Mikelek Aneri oparia eman.

Hiru analisisiek, hurrenkerari dagokionez, arazo bera dute. Izan ere, (11a)ko hurrenkera neutroa aurkeztu beharrean, (11b)ko hurrenkera agertzen dute.


Perpaus nagusi jokatu gabe Lakak tarte berezia eskaintzen die. Honek baieztatzen duena egia bada eta perpaus ez-jokatuek denborarik ez badute, Ortiz de Urbinaren eta Haddicanen analisisiek ez dute arazorik, *ez umeari gezurrik esan* bezalako perpausak azaltzeko. Izan ere, Haddicanen analisisian egin beharko genukeen gauza bakarra Denb eta Lag buruak hutsik daudela proposatzea litzateke. Ortiz de Urbinaren analisisian ere, Infl burua hutsik legoke:

(58) [KonpS[Konp~~ez~~-Ø_j][InflS[EzS[AS[DS~~umeari~~][A'[DS~~gezurrik~~][A~~esan~~]]][Ez~~t~~]][Infl~~t~~]]]

Horrela, ezeztapen buruak ez dio inflexioari euskarri lexikoa eman behar eta perpaus osoaren gaineko besarkadura izateko (operatzaile izaerak eskatuta) Konp burura igoko da buru mugimenduaren bidez. Baina nola azaldu *ez esan umeari gezurrik* bezalako hurrenkera? Aukera bakarra litzateke, analisi bietarako, proposatzea agian aditz ez jokatuak adizki sintetikoek bezala jokutzen dutela. Ortiz de Urbinaren kasuan aditzak aukeran izango luke Infl huts bat lexikalizatzea. Haddicanen azalbidean aditza Denb buru hutsarekin elkartuko litzateke.

4.2. Mendeko perpausak

Lakak mendeko perpausak ere azaltzen ditu. Ortiz de Urbinak baieztatu mendeko perpausak aurkezten ditu, bereziki Konp kategoria hedatua aurkezten duen (2008) lanean; baina, ez, ordea, ezeztapenak. Saiatuko bagara bere menpeko perpausen inguruko analisia hedatzen, komeni zaigu kontuan hartzea, beraz, lan horretan Rizziren (1997) analisia euskarari aplikatuz, egin duen proposamena. Proposamen horretan menpeko perpausen egiturari *Jokatutasun Sintagma (JokS)* eta *Indar Sintagma (IndS)* gehitzen dizkio eta TopS eta FokS IndS eta JokS-ren artean kokatuko lirateke, perpausaren ezker periferian honako egitura sortuz:



Analisia konplexuagoa den arren, ez da lan honetako erronka analisia laburtzea eta egitura berri hau ez da guztiz erabakigarria izango Ortiz de Urbinaren proposamenaren hedapenean. Beraz, azter ditzagun mendeko perpausak azaldu berri dutan egitura kontuan izanda. Laguntzailearen ezkererako destokitzea duten mendeko perpausetan ez dago arazorik; izan ere, *-(e)la* atzizkidun perpausetan ezeztapena FokS-ren burura igoko da operatzaile izaerak bultzatuta eta bidetik aditza hartuko du. Zehar-galderetan, mugimendu horretaz gain, NZ-hitza FokS-ren espezifikatzaile igoko da. Egia esan,

zehar-galderetan ezeztapenak foku burura igotzeko duen arrazoi bakarra ez da perpaus osoaren gaineko besarkadura izatea; baita NZ-irizpidea betetzea ere. Hau da, fokuak [+NZ] tasuna duenez, [+NZ] den fokuaeren espezifikatzailearekin komunztadura izateko, foku buruak lexikoki gauzatu behar du, eta laguntzaileak ezin duenez hori egin ahula delako, ezeztapenak egin behar du, lehenago laguntzailea hartuz. Laguntzailearen destokitzerik ez duten mendeko perpausetan, esan beharko genuke ezeztapena ez dela bere tokitik mugitzen. Horrela, hurrenkera ondo islatuko litzateke baina ezingo genuke azaldu zergatik ezeztapena ez den igotzen perpaus osoaren gaineko besarkadura izango duen posizio batera eta, zehar-galderen kasuan, zergatik ez den foku burua lexikoki gauzatu behar.

Haddicanek ez dituen mendeko perpausak kontuan hartzen, ez dago argi nola jokatu behar den hauek aztertzeko. PoS bada egiturako bururik gorena, Konp burua Pol buruaren gainetik kokatu beharko litzatekeela ematen du eta menderagailua eta laguntzailea klitizazio morfologikoaren bidez elkartu beharko liratekeela, konplementatzilea laguntzailearen atzetan agertu ahal izateko, atzizki gisa. Honek ez du islatzen mendeko perpausen hurrenkera, baina horri irtenbide bat emateak lan honen mugak gainditzen ditu.

5. ONDORIOAK

Lanean zehar ezeztapena landu da. Saiatu naiz ezeztapena ahalik eta zehatzen deskribatzen eta ezeztapenaren inguruan egin diren analisi sintaktikoak aurkezten. Horretarako, hiru dira eman ditudan urratsak: lehen urratsean polaritatedun perpausak deskribatu ditut. Argudiatu dut euskara ezeztapen komunztadura duen eta ezeztapen marka bakarreko hizkuntza dela. Horrez gain, ikusi dugu ezezeko perpausak, oro har, aldaketak eragiten dituztela hitz hurrenkera: baiezko perpausetan A-Lag hurrenkera badugu ere, ezezeko perpausetan laguntzailea ezeztapenaren ondoan ageri da, aditza laguntzailearen eskumatara geratuz. Baiezko perpausetan ezin da partikula modalak ez diren beste osagairik txertatu aditza eta laguntzailearen artean. Ezezeko perpausetan, berriz, debeku hori ezeztapena eta laguntzailearen artean gertatzen da, laguntzailearen eta aditzaren artean nahi beste osagai txerta daitezkeelarik. Dena den, mendeko zenbait perpausetan ez da laguntzailea ezkerretara mugitzen eta A-ez-Lag hurrenkera agertzen da; hala denean ezin da ezer txertatu hiru osagai horien artean.

Komplementatzaileek hautatzen duten hurrenkerari dagokionez, ez dago batasunik. Batzuek nekez onartzen dute laguntzailearen ezkererako destokitzea eta beste batzuek hurrenkera biak onartzen dituzte. Laguntzailearen ezkererako destokitzea duen hurrenkera soilik eskatzea ez da horren ohikoa eta, sarri, hautu dialektala izaten da, -(e)la konplementatzailea dugularik horren adibide. Horrela, ondoriozta daiteke mendeko perpausen hurrenkera arruntena edo ohikoena *A-ez-lag* dela, baina, Artiagoitiak (2003:762) dioenez, zenbat eta zama semantiko txikiagoa izan konplementatzaileak, orduan eta errazago onartzen du laguntzailearen ezkererako destokitzea. Arau hau ez da beti, kasu guztietan betetzen, baina ideia interesgarria da, Lakak (1991) azalpen oso antzekoa ematen baitu -(e)la-ren hurrenkera bien kontua argitzeko.

Ezeztapenaren korapiloa askatu nahi izan dute hainbat hizkuntzalarik. Bigarren urratsa proposamen guztien artetik nagusienak diren hirurak aurkeztea izan da: Lakaren proposamena, Ortiz de Urbinarena eta Haddicanek antisimetriaren eredu teorikotik egindakoa. Lakak eta Ortiz de Urbinak eredu teoriko beretik heldu badiote ere, ezberdintasun nabariak daude bien proposamenen artean. Biek dute ezeztapena buru gisa, baina Ortiz de Urbinak, horretaz gain, operatzailetzat jotzen du. Analisisian ez dute posizio edo maila berean kokatzen: Lakak egiturako maila gorenean kokatzen du ezeztapena, perpaus guztiaren gaineko besarkadura duelakoan. Ortiz de Urbinak, berriz, inflexioa eta aditzaren artean kokatzen du. Lakaren proposamenean, laguntzailearen mugida *denboraren o-komando baldintzak* bultzatuta gertatzen da eta Ortiz de Urbinarenean, aldiz, ezeztapena inflexiora mugitzen da honi euskarri lexikoa emateko eta inflexio buru konplexua *Konp*-era igotzen da ezeztapenaren operatzaile izaerak eraginda.

Hiru analisiok hedatzea izan da hirugarren pausoa. Hortaz, orain proposamenek izan ditzaketan gabeziak, edo, hobe esanda, egileek kontutan izan ez dituzten alorrak agerian uzteko ahalegina egingo dut:

Euskaraz, subjektuak arazoak ematen dituela dirudi: ezezko perpausen ordena neutroaz hitz egin dugunean, esan dugu “etxea ez da erori” eta “inor ez da etorri” bezalako perpausak direla arruntenak, “ez da etxea erori” eta “ez da inor etorri” baino ohikoagoak aurrekaririk gabeko testuinguruetan. Lakak (1993:32-33) proposatzen du “inor ez da etorri” bezalako perpausak ditugunean, hots, EPE bat dugunean ezeztapenaren aurretik, EPE horrek eta ezeztapenak nolabaiteko *espezifikatzaile-buru* harremana dutela. Baina zer gertatzen da EPE ez diren subjektuekin? Lakaren analisiak

ez du azaltzen subjektuaren posizio arrunta; “ez da etxea erori”, “ez da Miren etorri” bezalako hurrenkerak lortzen baititugu bere analisiaren bidez. Dena den, arazo hau orokorra dela ematen du, Haddicanek eta Ortiz de Urbinak ere ez dutelako subjektuaren posizioa irudikatzen asmatzen.

Buru-parametroa erabiltzen duten analisei helduz, Ortiz de Urbina eta Laka bat datoz ezeztapenaren besarkadura ahalmenean: biek diote ezeztapenak perpaus osoaren gaineko besarkadura duela. Gogoratu, Ortiz de Urbinak ezeztapena operatzailetzat duela eta operatzaileak perpausaren gaineko besarkadura duten elementuak direla. Dena den, Haddicanek ekarritako datuen bidez frogatuta gelditu da partikula ebidentzial eta modalek ezeztapenaren gaineko besarkadura izan behar dutela. Ezeztapenaren eta partikula modalen arteko besarkadura harreman hori ezin da azaldu Lakaren eta Ortiz de Urbinaren lanekin.

Dena den, horrek ez du esan nahi Haddicanen proposamena zuzenena denik. Esan beharra dago perpaus nagusiei dagokienez, oso proposamen landua dela, baina ez ditu kontuan hartu mendeko perpausak eta perpaus jokatuabeak. Perpaus nagusi jokatuak ondo azal ditzakeen arren, ez dirudi bere analisiak irtenbide argirik duenik mendeko perpausen hurrenkera azaltzeko orduan. Antisimetriaren ikuspegitik gehiago landu beharreko arloa da ezeztapena, beraz.

Haddican ez da ezezko mendeko perpausen analisirik proposatu ez duen bakarra. Ortiz de Urbinak baiezko mendeko perpausen analisia bai, baina ezezkoen analisirik ez du aurkezten. 4. puntuan ikusitakoaren arabera, badirudi errazago edo hobexeago azal litezkeela laguntzailearen ezkererako destokitzea duten ezezko mendeko perpausak, baina esan dugu hori ez dela perpaus mota honen hurrenkerarik oinarritzakoa. Beraz, mendeko perpausen alorrean lan handia egin behar da oraindik ere.

Argi dago lan hau analisiek izan ditzaketan arazoak azaleratzeko saiakera txiki bat baino ez dela izan. Hurrengo lan batzuetarako galdera nahikotxo gelditzen baitira zabalik, ikusi dugunez.

Azkenik, lantxo honi amaiera emateko, esan nahi nuke, Lakaren analisia dela, nire ustez, orain arte eginiko proposamenen artean osoena eta egitura hoberen islatzen duena. Aintzat hartu ditu perpaus mota asko bere analisia eraikitzean eta horrek sendotasuna ematen dio analisiari. Baina ez du ematen Ortiz de Urbinaren analisia okerreko bidetik doanik. Ortiz de Urbinak berak (1993:397) bere lanari aurkitutako muga batez dihardu. Ezezko perpausetan ageri den laguntzailearen lekualdatzea, nahiz eta kasu konkretu eta espezifikoa izan (ezeztapenean baino ez baita gertatzen),

hizkuntzaren mekanismo orokor gisa interpretatzen du. Horrela bada, hizkuntzaren mekanismo orokorra bada, alegia, bere proposamenak ezin du azaldu zergatik ez dagoen laguntzailearen destokitzerik zenbait mendeko perpausetan. Baina ez ditzagun guztiz baztertu honako hitzok: *guek ajutu ezdugu*. Donemiliagako glosetan aurkitutako euskarazko perpausetako bat da. Perpaus honetan ez da ageri gaur egun ezeztapenak perpaus nagusietan duen hitz hurrenkera, baizik eta zenbait mendeko perpausetan ageri dena, Ortiz de Urbinak laguntzailearen destokitzerik gabeko perpaustzat jotzen duena. Egitura hori hain da zaharra, ezen pentsa bailiteke hori dela ezezko perpausetako oinarritzko hurrenkera (ikus Reguero 2013) eta, gerora, hainbat aldaketa gertatu direla gaur egungo ordena lortu arte. Hori horrela balitz, laguntzailearen ezkererako destokitzea ez litzateke hizkuntzaren mekanismo orokor bat izango, berrikuntza bat baizik eta Ortiz de Urbinaren analisiak hobeto azalduko lituzke mendeko perpausak, ez lukeelako azaldu behar zergatik ez dagoen destokitzerik eta, nolabait, zintzoagoa litzateke analisi hau besteak baino, euskararen garapena islatuko lukeelako.

6. BIBLIOGRAFIA

- Arteatx, I., Artiagoitia, X. eta Elordieta, A. (arg.) (2008) *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarritzko hitz hurrenkera ezbaian*, Bilbo:EHU.
- Artiagoitia, X. (2003) "A final note on negation in subordinate structures", in J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.) *A Grammar of Basque*, Berlin: Mouton de Gruyter. 752-762.
- Cheng, L. eta Demirdache, H. (1993) "External Arguments in Basque", in J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.) *Generative Studies in Basque Linguistics*, Filadelfia: Benjamins. 71-87.
- Cinque, G. (1999) *Adverbs and Functional Heads: A Cross-Linguistic Perspective*, Oxford: Oxford University Press.
- Duguine, M. (2008) "Silent arguments without *pro*. The case of Basque", in T. Biberauer (arg.) *The Limits of Syntactic Variation*. Filadelfia: John Benjamins. 311-329.
- Elordieta, A. (2001) *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, Utrecht: LOT series 47. Doktorego tesia, Hill/Universiteit Leiden.

- Etxepare, R. (2003) “Negation”, in J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.) *A Grammar of Basque*, Berlin: Mouton de Gruyter. 516-564.
- Etxepare, R. (2011) “*Omen bariazioan*”, in I. Epelde (arg.) *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, ASJUren gehigarriak, Bilbo:EHU. 85-112.
- Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea (1991) *Euskal gramatika: lehen urratsak I (EGLU)*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskara Institutua, EHU, "Baieztapena eta ezeztapena", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)* [www.ehu.eus/seg]
- Greenberg, J. (1963) *Universals of Language*, Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Haddican, B. (2004) “Sentence Polarity and Word Order in Basque”, *The Linguistic Review* 21:2. 81-124.
- Haddican, B. (2008) “Euskal perpausaren oinarrizko *espez-buru-osagarri* hurrenkeraren aldeko argudio batzuk”, in Arteatx, Artiagoitia eta Elordieta (arg), *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarrizko hitz hurrenkera ezbaian*, Bilbo: EHU. 69-96.
- Haegeman, L. eta Zanuttini, R. (1991) “Negative Heads and the NEG Criterion”, *The Linguistic Review* 8. 233-251. [Gero honako erreferentziapen berrargitaratua: Kayne, R., Leu, T., eta Zanuttini R. (arg.) (2013) *An Annotated Syntax Reader: Lasting Insights and Questions*, Wiley-Blackwell. 262-276.]
- Kayne, R. (1994) *The Antisymmetry of Syntax*, Cambridge MA: MIT Press.
- Laka, I. (1988) “Configurational heads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque”, *ASJU* 22:2. 343-366.
- Laka, I. (1989) “Ezeztapena euskaraz”, in P. Salaburu (arg.) *Sintaxi teoría eta euskara*, Donostia: EHU. 73-85.
- Laka, I. (1990) *Negation in syntax. On the nature of functional categories and projections*, MIT Doktorego tesia. [gero (1991) urtean *ASJU* XXV-1, 65-136 erreferentziapen argitaratua]
- Laka, I. (1991) “Sentence Negation in Basque”, in J. Lakarra (arg.) *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, Donostia: ASJUren gehigarriak. 899-226.

- Laka, I. (1993) "The Structure of Inflection: A case study in X⁰ syntax", in J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.) *Generative Studies in Basque Linguistics*, Amsterdam: John Benjamins. 21-70.
- Ortiz de Urbina, J. (1989a) "The pro-drop parameter", in *Parameters in the grammar of Basque: a GB approach to Basque syntax*, Dordrecht: Foris. 157-165.
- Ortiz de Urbina, J. (1989b) "Dislocaciones verbales en estructuras de polaridad", *ASJU* XXIII-2, 393-410.
- Ortiz de Urbina, J. (1993) "Checking Domains in Basque and Breton", *ASJU* XXVII-3, 751-776.
- Ortiz de Urbina, J. (1999) "Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque", in J. Franco & A. Landa (arg.) *Gramatical Analysis of Romance and Basque*, Amsterdam: John Benjamins, 179-194. [euskarazko bertsio moldatua = Ortiz de Urbina 2008]
- Ortiz de Urbina, J. (2008) "Indar sintagmak, Foku sintagmak eta ezker aldeko buruak euskaraz", in Arteatx, Artiagoitia eta Elordieta (arg.), *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarriko hitz hurrenkera ezbaian*, Bilbo: EHU. 51-67. [artikulu honen jatorrizko bertsioa = Ortiz de Urbina 1999]
- Pollock, J. Y. (1989) "Verb Movement, Universal Grammar, and the Structure of IP", *Linguistic Inquiry* 20:3. 365-424.
- Reguero, U. (2013) "Word order", in M. Martinez Areta (arg.) *Basque and Proto-Basque: Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*, Frankfurt: Peter Lang. 429-460.
- de Rijk, R. (1996) "Focus and Quasifocus on the Basque Negative Statements", *RIEV* 41, 63-76.
- Rizzi, L. (1997) "The Fine Structure of the Left Periphery", in L. Haegeman (arg.) *Elements of Grammar*, Dordrecht: Kluwer. 281-337.
- Travis, L. (1984) *Parameters and Effects of Word Order Variation*, Doktorego tesia, MIT.